

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5842

159/2018 DEKRETUA, azaroaren 13koa, zeinaren bidez aldatzen baita Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen Dekretua.

Urriaren 31ko 241/2017 Dekretuaren bidez, Euskadiko Nazioartekotze Agentzia Sozietate Publikoa sortu zen, Euskal enpresak nazioartekotzeko eta atzerrian laguntzeko eginkizunak biltzeko helburuarekin. Orain arte, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Nazioartekotze Zuzendaritzak eta Eraldaketa Lehiakorrek Sozietatea SAren nazioartekotze arloak betetzen zituzten nazioartekotzeko eginkizun horiek. Bestalde, eta aldi berean, zuzenbide pribatuko erakunde publiko berri bat sortu zen, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia izeneko, enpresak sustatzea eginkizuntzat zuena, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearen hamahirugarren xedapen gehigarrian. Eraldaketa Lehiakorrek Sozietatea SAren akzioen % 100 atxikiko zaio erakunde berri honi, aurrekoaren desagertzea eraginez.

Lehen esan bezala, Nazioartekotze Zuzendaritzak betetzen zituen gaur arte nazioartekotzeko arloaren eginkizunak, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretua xedatutakoa aplikatuz, zeina eman baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, ezabatu, aldatu eta beroien egitekoak eta jardute-eremuak finkatzen dituen Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretua garatzeko. Eginkizun horiei lotuta, eta kide anitzeko organo gisa, Sailari atxikita dago Euskadiko Nazioartekotze Batzordea eta Sailari atxikitako sozietate publiko gisa ere Eraldaketa Lehiakorrek Sozietatea SA. Nazioartekotze arloan sortutako egitura berri horrek eta aipatu sozietatea desagertzeak Sailaren erregelamendu organikoa derrigor aldatzea dakarte, hari egokitzeko.

Horren ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretua aldatuko da (2017ko apirilaren 21eko EHAA, 76. zk.). Gainera, adierazi da Euskal Autonomia Erkidegoko bertako abere-arrazei eta arraza horiek sustatzea helburu duten elkarteei buruzko abenduaren 26ko 373/2001 Dekretuak sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko Bertako Abere-arrazen Kontseilua indargabetu zela Euskal Autonomia Erkidegoko bertako abere-arrazak bizirauteko, hobetzeko eta sustatzeko, eta arraza horiek sustatzeko erakundeak arautzeko martxoaren 4ko 31/2014 Dekretuaren bitartez, zeinak era berean Euskal Autonomia Erkidegoko bertako abere-arrazak bizirauteko, hobetzeko eta sustatzeko, eta arraza horiek sustatzeko erakundeak arautzeko ekainaren 2ko 31/2015 Dekretuak indargabetu baitzuen; hortaz, hura kenduko da Sailari atxikitako administrazio-organoko gisa.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturarako sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2018ko azaroaren 13an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 2. artikuluan A) letraren 3. paragrafoko 3.3 apartatua ezabatzen da.

Bigarren artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 2. artikulua C) letraren 1. paragrafoko 1.3 apartatua gehitzen da, honela dioena:

«1.3.– SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia».

3. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 2. artikulua C) letraren 2. paragrafoko 2.1 apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

«2.1.– Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, S.A. (SPRI), desagerbidean».

4. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 2. artikulua C) letraren 2. paragrafoko 2.7 apartatua gehitzen da, eta honela geratzen da:

«2.7.– Euskadiko Nazioartekotze Agentzia Sozietate Publikoa / Basque Trade And Investment SA».

5. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 2. artikulua D) letraren 1. apartatua ezabatzen da.

6. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 2. artikulua D) letraren 6. apartatua ezabatzen da.

7. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 11. artikulua 3. paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«3.– Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía (EEE/EVE) zuzenbide pribatuko erakunde publikoa sailari atxikita egonik, atxikipen horren ondoriozko eskumenak baliatuko ditu Industria Sailburuordetzak».

8. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 11. artikulua 4. paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«4.– Industria Sailburuordetzaren menpean egongo dira hierarkikoki Industria Garatzeko Zuzendaritza eta Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza».

9. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 14. artikulua ezabatzen da.

10. artikulua.– Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 17. artikulua 2. paragrafoa aldatzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«2.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak honako hauei emango die laguntza tekniko eta administratiboa: Landare Osasunaren Batzorde Tekniko Koordinatzaileari, Euskadiko Ekoizpen Integraturako Koordinazio Batzordeari, Euskadiko Animalien Elikadurarako Batzordeari, Ehizako Trofeoak Homologatzeko Batzordeari eta Euskadiko Abeltzaintza Arrazen Koordinazio Batzordeari».

2018ko azaroaren 28a, asteazkena

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Baimena ematen zaio Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak har ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau 2019ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko azaroaren 13an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.